



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Topagune hori elkarrekin analisiak eta hausnarketa egiteko sortu da, eta beharrezkoa izango da agente guztiek hori martxan jarri eta garatzeko prozesuan beren konpromisoa erakustea.
- Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, topagune horren dinamizazioan lagundu nahi du, parte hartzen duten agente guztien jardunen koordinazioa eta lankidetzeta hobetzeko tresna eraginkorra izan dadin.

## 4. ARDATZA ERAIKUNTZAREN KALITATEA, IRAUNKORTASUNA, SEGURTASUNA ETA BERRIKUNTZA

### 4.1 HELBURU NAGUSIAK

- EAEko etxebizitzaren eraikuntzan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzea, eta bereziki etxebizitza babestuen sustapenean.
- Sektoreko lidergoa beregain hartzea gai horietan.

### 4.2 JARDUN ILDOAK

#### **Etxebizitza iraunkorra gauzatzeko bultzada: Eraikuntza Iraunkorraren Gida.**

- Eusko jaurlaritzak oso zeregin garrantzitsua egin ohi du iraunkortasunaren alde bere jardunetan. Hemendik aurrera, horrekin batera, sektore osoan iraunkortasuna bultzatzeko ildo bat gaineratzen du.
- Eraikuntzako enpresen sektorearen enpresa-testuinguruan duela gutxi zenbait arau eta gomendio-gida onartu dira, eta epe laburrean eta ertainean aldaketa handia sartuko dute sektoreko enpresetan kalitateari, berrikuntzari eta iraunkortasunari dagokienez.
- Lehenik, esan behar da Eusko Jaurlaritzak etxebizitzarako Eraikuntza Iraunkorraren Gida onartu duela, eta bertan etxebizitza-eraikinen eraikuntzari beren bitzita osoan zehar aplikatzeko gomendio asko biltzen ditu. Gainera, gida horrek etxebizitza-eraikinen iraunkortasuna baloratzeko prozedura biltzen du, eraikuntza-proiektu baten iraunkortasunaren kalifikazioa nahiko erraz ezagutzeko.
- Gida hori ezartzeko prozesua sekuentzialki egin behar da. Lehen fase batean, enpresetan bere edukiei buruzko informazio eta prestakuntzarako jarduerak egin behar dira. Ondoren, bigarren fase batean, laguntza-ildo bat martxan jarriko da bereziki eraginkorrak diren praktikak har daitezkeen bultzatzeko, hau da, kostu txikienekin aurrezki handiena lortzen duten praktikak. Horretarako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta VISESaren sustapenak baliagarriak izango dira laguntzak jaso ditzaketen praktikak azalertzeko. Gainera, etxebizitza babestuko sustapenetan, baldintza horiek betetzen



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- dituzten sustapenek beste onura batzuk (salmenta-prezio handiagoak, eta abar) izatea aztertuko da.
- Aldi berean, bigarren fase horretan sustapenaren iraunkortasun-maila ziurtatzeko prozedura bat martxan jartzeko beharrezko jarduerak gauzatu dira. Ildo horretan, ezarritako adierazleen bitartez, etxebizitza-sustapenek kalifikazio bat jasoko dute gomendioen bete-maila erraz identifikatzeko (adibidez, etxetresna elektrikoek hartutakoaren antzeko eredu bati jarraiki). Azkenik, hirugarren eta azken urrats gisa, gidaren gomendiorik oinarritzkoenak dagokion araudiaren bitartez nahitaez bete beharraren komenigarritasuna aztertuko da.
  - bestalde, Etxebizitza Ministerioak Eraikuntzaren Kode teknikoa (EKT) onartu du, eraikinen eta horien instalazioen kalitate, segurtasun eta bizigarritasunerako oinarritzko eskakizunak ezartzen dituen arau-esparrua, eraikuntzaren sektorea ekonomia-, energia- eta ingurumen-iraunkortasunaren estrategiara egokitzeko, eraikin seguruagoak, bizitzeko hobeak, iraunkoragoak eta kalitate handiagoak bermatzeko.
  - Eusko jaurlaritzak alderdi horiek lehendik landuta zeuzkan, izan ere, hori ikus daiteke EKTak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak garatutako eraikinen efizientzia akustiko eredu bere dokumentuen artean barne hartzen duelako. Edonola ere, arau horren ezarpena errazeko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak sektoreko enpresentzako informazio eta prestakuntza-prozesua gidatuko du beste zenbait agenterekin batera, adibidez, Euskal herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Arkitekto Teknikoen Lanbide Elkargoak.
  - Sektoreko agenteen artean ere informazio- eta prestakuntza-jarduerak garatuko dira EAEko Etxebizitzari buruzko Lege berria onartzen denean, eraikuntza-prozesuaren zenbait alderditan aldatetako sartuko baititu (gutxieneko bizigarritasun-baldintzak, eta abar).
  - Bestalde, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak proba-banku izaten jarraituko du iraunkortasuna bere jardunetan sustatzeko. Horretarako fase guztietan eragiketa pilotuak martxan jarriko ditu, hirigintza-diseinua (eraikinen orientazioa aprobetxamendu termiko handiagoa lortzeko) eta etxebizitzaren eraikuntza, erabilera eta mantentzea barne. Hori guztia ahalik eta energia gehien aurrezteko. Era berean, kontsumitu behar den energia, batez ere energia berriztagarriak erabiltzen dituzten sistemen ezarpenaren bitartez lortuko da (panel termikoak, fotovoltaikoak, edo euri-ura ureztatzeko aprobetxatzeko sistemak, besteak beste).
  - Horretarako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak beste erakunde batzuekin lankidetzan bultzatuko du, adibidez Energiaren Euskal Erakundea edo IHOBE, eta Europar Batasunak diruz laguntzen dituen programak lortzeko proiektuak egingo ditu Europako beste zenbait agenterekin lankidetzan.



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### **Kultura berritzailea sustatzea eta sektoreari bultzada handia ematea industrializazioaren alorrean (esperientzia pilotuak). "Eraikuntzaren sektorearen industrializazioaren klusterraren" sorkuntza sustatzea.**

- Eraikuntzaren sektorea aldaketa handiak jasaten ari da alderdi askotan (araudian, gizarte-alderdian, eta abar), eta gero eta gehiago eskatzen dute berritu beharra, kalitate-maila handiagoak eta ingurumenaren alorrean praktika iraunkorragoak lortzera bideratu behar den berrikuntza.
- Horregatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aktiboki lankidetzan jardungo du Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin, sektoreko agenteen artean berrikuntzaren kultura sustatzeko eta berrikuntzarako laguntza-programen berri emateko.
- Bereziki, "Eraikuntzaren sektorearen industrializazioaren klusterraren" sorkuntza sustatuko da, industriaren ikuspuntutik modu egokiagoan landu daitezkeen kudeaketa- eta produkzio-prozedurak identifikatzeko, hau da, laneko errutina estandarizatuagoekin eta/edo parte-hartze teknologikoaren maila handiagoarekin (elementu aurrefabrikatuak sartzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak hartu eta erabiltzea, eta abar).
- Edonola ere, funtzio publikoari esleitutako bermearen printzipioa ez urratzeko, berrikuntza-proiektu horiek egiteko egiaztatu beharko da jardun-ildo horietan agente publikoen jarduna komenigarria dela, eta esperientzia pilotuen bitartez jarriko dira praktikan. Adibidez, berrikuntza-ildo horren barruan, egungo gizarte- eta ekonomia-testuinguruan egokiagoak izan daitezkeen etxebizitza-diseinuak aztertzea proposatuko da (etxebizitza txikiagoak, ekipamendu komunak, belaunaldien arteko soluzioak, eta abar).
- Etxebizitza babestuen sustapenen kasu espezifikoan, sustapen horiek ukitzen dituen diseinu-araudia malgutzeko formularik egokiena aztertuko da. Ildo horretan, Etxebizitza Babestua Diseinatzeako Ordenantzen eta Udal Ordenantzen bateragarritasuna kontuan izango da, gaur egun araudi-esparru horrek etxebizitzaren diseinu-aukerak asko murrizten dituelako, gaur egun gertatzen diren kontrol-bikoiztasunak ezabatuz (alderdi hori oso lotuta dago 1. ARDATZEAN aipatutako etxebizitza babestuen diseinuan malgutasun handiagoa lortzeko neurriekin).
- Adierazitakorekin bat eginik, zuzkidura-alojamenduen irudia, etxebizitza babestuek dituzten diseinu-murrizketak ez dituenek, aukera ona bezala ikusten da diseinu berriak praktikan jartzeko eta lehendik aipatutako esperientzia pilotuak gauzatzeko.

### **Eraikal Programari bultzada berria ematea eta kalitatearekiko konpromisoa etxebizitzaren sustapenean**

- Azken urteetan Eraikal Programa baliagarria izan da kalitate-praktikak hartzeko eta ingurumenaren kudeaketa hobetzeko. Ildo horretan, programa horri esker sektoreko enpresa askok ziurtagiria lortu dute ISO 9001 eta ISO 14001 arauetan. Era berean, beren kudeaketa ISO araudiak ezarritakora egokitze arazoak zituzten mikroenpresek ziurtagiria lortu dute K-21 Ereduan.



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Hala ere, aurrerapen horiek egin badira ere, oraindik hobetzeko marjina handia dago kalitateari dagokionez. Kalitate-ziurtagiri bat lortzeak ez du bermatzen egoera jakin batzuetan enpresek beren konpromisoak behar adinako kalitatearekin atenditzen dituztenik. Izan ere, eraikuntzaren sektorea kontsumitzaileen aldetik erreklamazio-kopururik handiena duen sektorea da (gehienetan etxebizitzaren akaberekin erlazionatuta).
- Eraikuntzaren sektorearen produkzio-prozesuak zenbait berezitasun ditu, eta horren ondorioz entregatutako produktua ezin da konparatu, kalitateari dagokionez, beste sektore industrial batzuen produktuarekin. Hala ere, berezitasun horiek ezin dira aitzakia izan kalitaterako gutxieneko baldintza batzuk ez betetzeko. Horregatik, beharrezkoa dirudi adierazle batzuk definitzea amaierako produktuaren (etxebizitzaren) kalitatearen hobekuntza modu praktikoan ebaluatzeko.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta bere esku-hartze taldeko Sozietateek ere eredu izan behar dute kalitateari dagokionez. Lehendik bete duten zeregina da, VISESAk zilarrezko Q lortzeak erakusten duen bezala, eta sozietate hori EAEn kudeaketari loturik erakunde aurreratuenetakotzat jotzen da. Beraz, VISESA da Euskadi osoan sari hori lortu duen lehen etxebizitza-sustatzaila. Hurrengo helburua urrezko Q lortzea izango da.
- Era berean, Sailak prozesu ezberdinetan kalitate-ziurtagiriak lortzea bultzatuko du, Etxebiderekkin hasita, dagoeneko ISO 9001 ziurtagiria lortu baitu 2006ko uztailearen amaieran.
- Etxebizitza babestuko sustapenen kasuan, abiapuntuko egoera beste Erkidego batzuetakoa baino askoz hobea da. Hala ere, sustapen-mota horietan kalitate bultzatzen duten sistema berriak aztertu beharko dira.
- Besteak beste, prezioen egungo sistematan aldaketak aztertuko dira (soilik etxebizitzaren azalera erabilgarriari loturik daude), eta horrela kalitatearen hobekuntzari eta iraunkotasunari loturiko parametroak ere kontuan izango dira. Aldaketa horrekin eraikuntza-enpresek zenbait elementutan egin duten kalitate-hobekuntzarako ahalegina onartzen da, eta ingurumen-praktika iraunkorrek hartzeko pizgarriak ere eman daitezke (alderdi horiek beste ikuspuntu batetik aztertzen dira 5. ARDATZEAN).
- Aurrekoari loturik, Eusko jaurlaritzak arreta berezia jarriko du materialen kalitate-kontrolari loturiko prozeduretan eta obraren eraikuntza-prozesuan, kalitateko gutxienezko estandarrak bermatzeko eta gutxieneko horiekiko hobekuntzak sartzea bultzatzeko etxebizitza babestuen eraikuntzan. Era berean, eraikuntzarako teknikak eta materialak aztertuko dira etxebizitzaren eraginkortasun termikoa eta akustikoa sustatzeko, herritarrentzat hori garrantzitsua baita, eta horretarako baliabide tekniko eta ekonomiko handiak behar dira.
- Edonola ere, kalitatearen kontzeptuak materialen eta eraikuntza-prozesuen esparrua gaintzen du. Sustapenaren kalitateak barne hartzen du gizarte-inguru aberatsak, bizitzeko erosoak eta giza harremanak bultzatzen dituztenak sortzea. Horregatik, kalitatea eta iraunkortasuna, hiriak diseinatzen diren unetik kontuan hartu behar diren kontzeptuak dira.



---

### **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

- Ondorioz, Jaurlaritza saiatuko da hirigintza-plangintzan parte hartzen duten agente guztiek, eta bereziki Udalek, kalitatearekin eta iraunkortasunarekin konpromiso hori bereganatzea.
- Azkenik, 2006-2009ko Planak iraunkortasuna eta kalitatea sustatu nahi ditu herritarren parte-hartzearen bitartez. Horretarako, parte-hartze prozesuak martxan jarriko dira auzo-elkarteekin eta herritar guztiekin, hiri-inguruen eta eraikinen diseinua edo energia-sistema iraunkorren instalazioa eta mantentzea bezalako alderdiak lantzeko (Ikus 0).

### **Laneko segurtasuneko baldintza bikainak bermatzea Sailaren eta VISESAren obretan, eta alor honetan lidergoa gauzatzea sustatzaile pribatuekiko**

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak jakin badaki erakuntzaren kalitatea zaintzeko bere eraikuntza-obretan segurtasun- eta osasun-baldintza ezin hobeak mantendu behar dituela. Horregatik, laneko ezbeharrei eta ezegonkortasunari aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak ezartzeko konpromisoa hartzen du.
- Horrela, Lan-segurtasunaren arloan, azpimarratzekoa da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta VISESAk 2005eko martxoan hasitako lanarekin jarraituko dutela, eraikuntzaren sektorean EAEn ordezkaritza handiena duten sindikatuekin hitzarmen bat sinatuz laneko ezbeharren prebentziorako. Akordio horrek lan-baldintza egokiak bultzatzen dituen irizpide eta jardunak zehazten ditu Sailak eta VISESAk zuzenean sustaturiko eraikuntza-obren eremuan.
- Hitzarmen hori sinatzeak esan nahi du Eusko Jaurlaritzak ereduazko eta lider izateko jarrera hartuko duela, sektoreko gainerako agenteengan trakzio-efektua izateko moduan, ezbehar-tasa epeetan eta kostu gehigarri esanguratsuetan eragin gabe murriztu litekeela erakutsita.
- Hori guztia obrako Segurtasun eta Osasuneko Lurralde Ordezkararen irudiaren sorkuntzarekin, lanaren eta laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dagoen legeria betetzen dela bermatzeko.

### **Sektoreko agenteekin lankidetzan aritzea (eraikuntzari loturiko elkargo profesionalak, sustatzaileak, eraikitzaileak, unibertsitateak, eta abar)**

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak mekanismo berriak gaituko ditu sektoreko beste agente batzuekin lankidetzara bultzatzeko, ikuspegi desberdina eta osagarria eskaini dezaketelako eraikuntzaren kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza hobetzeko jardun-ildoak dagokienez.



---

### Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Eraikuntzaren sektoreko elkargo profesionalek (arkitektoen, aparejadoreen, ingeniarien eta abarren elkargoak), enpresa sustatzaileek, eraikitzaileek, unibertsitateko irakasleek eta, oro har sektoreari loturiko pertsonak dituzten ezagutza eta prestakuntza oso baliagarriak izan daitezke Etxebizitza Bideratzeko Planak jardun-ildo horretan dituen helburuetarako.